

PATRONALAREN EZ-BETETZEEN AURREAN, BIDE JUDIZIALA ETA EKINTZA SINDIKALA!

Duela 2 urte baino gehiago eta 14 greba egunen ondoren, Greba Amaierako Akordioa (GAA) sinatzea lortu genuen. Azken aldi horretara arte, behin GAA sinatuta, berehala aplikatzen zen, eta hilabete pare batean sinatutakoa hitzarmen berri batean txertatuta zegoen. Patronalek GAA sinatu zuten, baina oraingoan ez zuten aplikatu nahi izan eta, beraz, ez dute hitzarmen berri batean txertatzen utzi. Argi geratu da bi urte hauetan KEk eta AICE-IZEAk fede txarrez jokatu dutela, akordioa betetzeko asmorik ez zutela jakinda sinatu zutelako. Lehenik uko egin zioten soldatak eguneratzeari, sinatutako igoeren arabera, eta epaitegietara jo behar izan genuen. Horiek arrazoia eman ziguten esanez akordioak hitzarmen maila duela berria sinatu arte, eta sinatutako guztia sinaduraren unetik aplikatu behar dela. Une horretan patronalek epaia errespetatu eta bete zuten. 25-26 ikasturte honetan eskola-ordu murrizketa aplikatu behar zuten, eta lan pertsonalerako ordu osagarriak 4tik 5era pasatu. Horrekin lan karga murriztea lortu genuen, eta ikasgelak ixteagatik kaleratzeak ekiditen genituen. Uko egin zioten aplikatzeari eta, beste behin, epaitegietara jo behar izan genuen. Bigarren aldiz, epaia langileen aldekoa izan zen, baina, kasu honetan, KE eta AICE-IZEA ez ziren konformatu GAA ez betetzearekin, eta epaia ere ez dute bete.

GAAren beste ez-betetze batzuk hauek dira:

- ❖ Uko egiten diote ikasgela ixteagatik kaleratutakoei lan egindako urte bakoitzeko 26 eguneko kalte-ordaina emateari, denbora-mugarik gabe.
- ❖ DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako langileen soldata osoa ordaintzeari uko egin diote, eta % 0,57 murriztu dute 2025eko urtariletik.
- ❖ Ez dute % 16ko igoera aplikatzen tutoretza-plusean.

Horrekin batera, patronalek hitzarmen berria sinatzeko egindako azken proposamenean, atzerapausoak proposatu dituzte:

- ❖ Atzerapausoak ezarri nahi dizkigute, aurreko hitzarmenak ematen zizkigun baimen-egunak kenduz.
- ❖ Antzinatasunari begira lan egindako egun guztiak aitortzea zaildu nahi dute
- ❖ Haur Hezkuntzako lehen zikloan lan egiten duten langileen oportetako 10 egunetan murrizketak ezarri nahi dituzte.
- ❖ 6 hilabetetik gorako kontratuak lehen egunetik mugagabeak direla ez dute onartu nahi.
- ❖ Birkokatzeko akordioan jasotako AZLak birkokatzeko eskubidea kendu nahi dute.
- ❖ ...

Horrekin guztiarekin, KEk eta AICE-IZEAk nahita blokeatu dute hitzarmen berri baten sinadura eta, beraz, negoziazio kolektiboa.

Langileen lan eskubide guztiak jasota eta legez ziurtatuta daude bi dokumentutan: 17-21 hitzarmena, ultraktibitatean dagoena, eta GAA, beste bat sinatu arte hitzarmen maila duena. Egoera horren aurrean, STEILAS, CCOO, LAB eta UGTk sinatutako eskubide guzti-guztiak defendatzen jarraituko dugu, bai bide judizialekin, bai ekintza sindikalarekin. Eta KEk eta AICE-IZEAk proposatutako atzerapauso bakar bat ere ez dugu onartuko. Ildo horretan, hurrengo kanpainak jarriko ditugu abian:

1. Enplegua mantentzeari buruzko Mahai Teknikoa deituko dugu:

Greba Amaierako Akordioan bilera batzuk adostu genituen sektoreko enpleguari eusteko. GAA ez aplikatzeak enpleguaren mantentzeari zuzenean eragiten dionez, STEILAS, CCOO, LAB eta UGTk Mahai Tekniko bat deituko dugu gaia aztertzeko.



2. Kolaborazio 0 kanpaina:

Patronalek eta ikastetxeek GAA betetzen ez dutela eta epaiak errespetatzen ez dituztela ikusita, guk borondatez egiten ditugun jarduera guztiak egiteari utziko diogu, nahitaezkoak ez direlako, hala nola:

- ❖ Ikasketa-bidaia.
- ❖ Gabonetako edo ikasturte amaierako jaialdiak.
- ❖ Lanaldia gainditzen duten irteerak.
- ❖ Ate irekien jardunaldiak larunbatetan edo lanalditik kanpo.
- ❖ Erlijio konbibentziak
- ❖ Gauak barne dituzten irteerak
- ❖ ...

3. Kaleratzeak gizarteratzea:

STEILAS, CCOO, LAB eta UGTk salatu nahi dugu GAA sinatutako eta EAEANren urtarrilaren 29ko epaian berretsitako eskola ordu bat ez murrizteak kaleratzeak eragiten dituela. 25-26 ikasturtean 100 kaleratze baino gehiago izan dira sektorean ikasgelak ixteagatik. Ikastetxe gehienetan, inor kaleratu behar ez izateaz gain, lanpostu berriak sortuko ziren. Patronalek eta ikastetxeek ezin dute esan kezkatuta daudela matrikularen jaitzierarekin, eta, bestalde, uko egitea kasu gehienetan arrazoi horregatik kaleratzeak saihesten dituen neurri bat aplikatzeari. Patronalek 26-27 ikasturtean ere sinatutakoa urratzen jarraitzen badute, irailaren 1ean arrazoi horregatik egindako kaleratzeak salatuko genituzke.

4. Familiak informatuta edukitzeko kanpaina:

STEILAS, CCOO, LAB eta UGTtik familiak jakinaren gainean eduki nahi ditugu patronalek eta ikastetxeek sinatutako akordioaren ez-betetzei buruz, baita hitzarmen berri bat sinatzean egiten duten blokeoari buruz ere. Familiei zirkular bat helarazten saiatuko gara, eta ikastetxeetako IGEekin bilerak eskatuko ditugu, azaltzeko KEren eta AICE-IZEAren negoziatzeko asmorik ezaren ondorioz 14 eguneko greba jasan genuela, 2024ko otsailaren 5ean GAAren sinadurarekin amaitu zirenak. GAAko ez betetzeak eta EAEANren epaia ez betetzeak hezkuntza-komunitate osoari eragiten dio eta eragingo dio.

5. Langileek sinatutako eskaera-kanpaina, ikastetxeek eskola-murrizketa aplika dezaten:

STEILAS, CCOO, LAB eta UGTk irakasleek ikastetxeetako zuzendaritzari sinatutako eskaera-kanpaina bat jarriko dugu abian, GAA sinatutako eta EAEANren epaian berretsitako eskola-ordu murrizketa aplika dezaten. KE eta AICE-IZEA patronalek ez dute bete GAA sinatutakoa, hau da, eskola-ordu murrizketa eta lan pertsonalerako 5. ordu osagarria. EAEANren epaia ere ez dute betetzen. Hala ere, ikastetxeek dute hori aplikatzeko azken hitza eta ahalmenaren % 100a, eta hori da eskatzen dieguna.

Beraz, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek patronalen ez-betetzeak salatzen jarraituko dugu, GAA jasotako eta sinatutako eskubide guztiak bete arte. Eta hitzarmen berri bat sinatzearen alde egiten jarraituko dugu, langileen eskubideetan atzerapauso bat ere onartu gabe, eta DBH, Batxilergo eta LHko irakasleen soldatetan deskonturik egin gabe (%16 eta ez % 15,43). Hori lortzeko, eskura ditugun tresna guztiak erabiltzen jarraituko dugu, bai bide judiziala, bai ekintza sindikala.



ANTE LOS INCUMPLIMIENTOS PATRONALES, VÍA JUDICIAL Y ACCIÓN SINDICAL!

Hace más de 2 años y tras 14 jornadas de huelga conseguimos firmar el Acuerdo Fin de Huelga (AFH). Hasta esta ocasión, una vez firmado el AFH, su aplicación era inmediata y en un par de meses lo firmado estaba insertado en un nuevo convenio. Las patronales firmaron el AFH pero, en esta ocasión no lo quisieron aplicar y, por lo tanto, tampoco han permitido su inclusión en un nuevo convenio. Ha quedado claro en estos dos años que KE y AICE-IZEA han actuado de mala fe porque firmaron sabiendo que no tenían intención de cumplir los acuerdos. Primero se negaron a actualizar los salarios en base a los incrementos firmados y tuvimos que acudir a los juzgados. Estos, nos dieron la razón diciendo que el acuerdo tiene nivel de convenio hasta la firma de uno nuevo y que todo lo firmado debe aplicarse desde el momento de la firma. En ese momento las patronales respetaron y cumplieron la sentencia. Este curso 25-26 tenían que aplicar la reducción lectiva y pasar de 4 a 5 las horas complementarias para trabajo personal. Con esto conseguimos reducir la carga de trabajo y evitábamos despidos por cierre de aulas. Se negaron a aplicarlo y, una vez más, tuvimos que acudir a los juzgados. Por segunda vez, la sentencia fue favorable a los trabajadores pero, en este caso, KE y AICE-IZEA no se conformaron con incumplir el AFH y tampoco han cumplido la sentencia.

Otros incumplimientos del AFH son:

- ❖ Se niegan a indemnizar a los despedidos por cierre de aula con 26 días por años trabajado sin límite de tiempo.
- ❖ Se niegan a pagar el sueldo íntegro de los trabajadores de ESO, Bachillerato y FP, reduciéndolo un 0,57% desde enero de 2025
- ❖ No aplican el incremento del 16% en el plus de tutoría.
- ❖ ...

Junto con esto en la última propuesta de las patronales para la firma del nuevo convenio, proponen una serie de retrocesos:

- ❖ Quieren imponernos retrocesos quitando días de permiso que nos concede el anterior convenio.
- ❖ Quieren dificultar al reconocimiento de todos los días trabajados de cara a la antigüedad
- ❖ Quieren aplicar recortes en los 10 días de vacaciones del personal que trabaja en el Primer ciclo de Infantil.
- ❖ Quieren que aceptemos que los contratos de más de 6 meses no sean indefinidos desde el primer día
- ❖ Quieren quitar el derecho a la recolocación del PAS recogido en el Acuerdo de recolocación.
- ❖ ...

Con todo esto KE y AICE-IZEA provocan el bloqueo intencionado de la firma de un nuevo convenio y, por lo tanto, de la negociación colectiva.

Todos los derechos laborales de los trabajadores están recogidos y legalmente asegurados en dos documentos, el convenio 17-21 que está en ultractividad, y el AFH que tiene nivel de convenio hasta firmar uno nuevo. Ante esta situación los STEILAS, CCOO, LAB y UGT continuaremos defendiendo todos y cada uno de los derechos firmados, tanto por la vía judicial como con la acción sindical. Y no aceptaremos ni uno solo de los retrocesos propuestos por KE y AICE-IZEA. En este sentido pondremos las siguientes campañas en marcha.

1. Convocaremos una Mesa Técnica sobre el mantenimiento del empleo:

En el acuerdo fin de huelga acordamos una serie de reuniones para tratar el mantenimiento del empleo en el sector. Puesto que la inaplicación del AFH afecta directamente al mantenimiento del empleo, STEILAS, CCOO, LAB y UGT convocaremos una mesa técnica para tratar el tema.



Viendo que las patronales y los colegios no cumplen el AFH ni respetan las sentencias, nosotros dejaremos de hacer todas aquellas actividades que hacemos de forma voluntaria por no ser obligatorias.

Son muchas las actividades que los trabajadores hacemos de forma voluntaria en los centros:

- ❖ Viajes de estudios.
- ❖ Festivales de Navidad o de fin de curso.
- ❖ Salidas que superen la jornada laboral.
- ❖ Jornadas de puertas abiertas los sábados o fuera de jornada laboral.
- ❖ Convivencias religiosas
- ❖ Salidas con noches.
- ❖ ...

3. Socializar los despidos:

STEILAS, CCOO, LAB y UGT queremos denunciar que el incumplimiento de la reducción de la reducción de una hora lectiva firmada en el AFH y refrendado en la sentencia TSJPV del 29 de enero, provoca despidos. Han sido más de 100 los despidos en el sector por cierre de aulas. En la mayoría de los centros no sólo no se debería de haber despedido a nadie, sino que se habrían generado nuevos puestos de trabajo. Las patronales y los colegios no pueden decir que están preocupados por el descenso de matrícula, y por otra parte negarse a aplicar una medida que evita, en la mayoría de los casos, los despidos por esta causa. Si las patronales se mantienen en seguir incumpliendo lo firmado también en el curso 26-27, denunciaríamos los despidos generados con fecha 1 de septiembre por esta causa.

4. Mantener a las familias informadas:

Desde STEILAS, CCOO, LAB y UGT queremos mantener a las familias informadas sobre la situación de incumplimiento y bloqueo a la que someten las patronales y las direcciones de colegios a los y las trabajadoras del sector. Intentaremos hacer llegar a las familias una circular y solicitaremos reuniones con las AMPA de los colegios para explicarles que fruto de la nula intención negociadora de KE y de AICE-IZEA, sufrimos 14 días de huelga que finalizaron el 5 de febrero de 2024 con la firma del AFH. Los incumplimientos del AFH y el no cumplimiento de la sentencia del TSJPV es algo que afecta y afectará a toda la comunidad educativa.

5. Campaña de petición firmada por los y las trabajadoras para que los colegios apliquen la reducción lectiva:

STEILAS, CCOO, LAB y UGT pondremos en marcha una campaña de petición firmada por el profesorado a las direcciones de los colegios para que estos apliquen la reducción lectiva firmada en el AFH y refrendada en la sentencia del TSJPV. Las patronales KE y ICE-IZEA no han cumplido lo firmado en el AFH respecto a la reducción lectiva y a las 5h complementarias para trabajo personal. Tampoco cumplen la sentencia del TSJPV. Aun así los colegios tienen la última palabra y el 100% de la potestad para aplicarlo, y es lo que les exigimos.

Así pues desde STEILAS, CCOO, LAB y UGT seguiremos denunciando los incumplimientos de las patronales hasta que estas cumplan íntegramente todos los derechos recogidos y firmados en el AFH. Y seguiremos trabajando por la firma de un nuevo convenio, sin aceptar ni un paso atrás en los derechos de los trabajadores, y sin descuentos en el sueldo de los profesores de ESO, Bachillerato y FP (16% y no 15,43%). Para conseguirlo seguiremos utilizando todas las herramientas a nuestro alcance, tanto la vía judicial como la acción sindical.

